



EzkerBatua
Berdeak

**Bakea eta Normalkuntza Politikoa
Bultzatzeko Dekalogoia**

EUSKADIN INDARKERIA BEHIN BETIKO ETETEKO, ELKARRIZKETA DEMOKRATIKOA SUSTATZEKO ETA ELKARBIZITZA ANITZA SENDOTZEKO ERRONKAK

1.- Estatuko gobernuaren eta ETaren arteko elkarrizketak era ofizialean hasi behar dira, benetako bake-prozesuaren oinarriak zehazteko. Unean-unean eta aldi-an aldi, estatuko gobernuko presidentek alderdi politiko guztiei jakinarazi beharko die zer une zehaztutan dagoen bake-prozesua eta nolako neurriak hartuko diren arlo horretan.

2.- ETak era guztietako indarkeria-adierazpenak behin betiko etengo dituela eta kale borroka gaitzesten duela iragarri behar du. Era berean, ez du normalkuntza politikorako prozesuaren gaineko inolako tutoretzarik izango, eta ezker abertzalearen eskuetan utziko ditu bere aldarrikapen politikoak. Aldi berean, bere ideiak eta proiektuak bide politiko eta demokratikoen bidez defendatzeko konpromisoa hartuko du ezker abertzaleak.

3.- Preso guztiak euren jaioterrira hurbildu behar dituzte, indarreko espetxe-legeriaren arabera. Testuinguru horretan, beste proposamen batzuk ere badaude; esate baterako, baldintzapeko askatasuna, maila-progresioa eta erregimen irekia, indultu partziala edo gaixotasun larriagatik eta/edo sendaezinagatik kartzelatik ateratzeko aukera. Euskal gizarte osoak, bertako erakunde adierazgarrienek eta eragile politiko eta sozial gehienek espetxe-politika aldatu egin behar dela uste dute. Horren ondorioz, bere horretan badirau, negoziaketa-prozesuan PSOEek presoek egoera trukaneurri moduan erabiltzeko asmoa duela esan liteke.

4.- Eskari demokratikoa da Alderdi Politikoek Legea berehala indarririk gabe uztea, ez duelako delituen egikaritzea zigortzen, proiektu politikoek defentsa baizik. Edonola ere, une honetan estatuko gobernuari eta Batasunari dagokie formula bideragarria bezain egingarria hitzartzea, ezker abertzalearen legalizazio politikoa eta juridikoa bete-betean bermatzeko. Horiek horrela, inork ez du gaur egungo egoera erabiliko honako urrats hauek guztiak atzeratzeko aitzakia moduan: elkarrizketa demokratikoa, normalkuntza politikorako mahaiaren eraketa, erabakitzeko eskubidearen onespenera buruzko eztabaida eta hitzarmena, ordenamendu juridiko eta politikoan kontuan hartzeko prozesua eta herri-galdeketa bidez erabiltzeko aukera.

5.- Era berean, 18/98 Auzia artxibatzea eta epaiketa bertan behera uztea ere bada gure erkidegoaren eskari demokratikoa. Izan ere, indarrean dagoen bitartean, argi eta garbi dago José María Aznarren gobernuen babespean eta PSOEn onespenez sortutako jazarpen politikoak bere horretan dirauela. Ez dago egoera horri eusterik, indarkeria bertan behera uzten bada, bakerako eta normalkuntza politikorako itxaropenik badago eta zuzenbide-estatuaren erreferenteak diren independentzia judiziala eta botereen banaketa berresten bada.

6.- Prestaketa-batzordea eratu behar da, normalkuntza politikorako mahaia sortzeko. Bertan, gainera, ordezkari bana izango dute alderdi politikoek. Bestak beste, metodologiari, agendari, gaiei, egutegiari... buruzko hitzarmena lortzea du helburu nagusi. Horrez gain, jatorri politikoko gatazken konponbidean esperientzia egiaztatua daukaten euskal eta nazioarteko eragileek ere parte hartu ahal izango dute. Aldebiko harremanei esker, alderdi politikoen arteko konfiantza berreskuratu da, baina goia jo dutenez, elkarrizketa demokratikoa mahaiaren inguruan bultzatzeko bide berriak bilatu behar dira. Egino Mahaiaren ekarpenak abiapuntu apartak izan daitezke, oso garrantzitsuak direlako eta adostasun-maila handia erdietsi zutelako bere garaian.

7.- Bakeari begira, protagonistak estatuko gobernu eta ETA izan behar badira ere, protagonista horiek alderdi politiko guztiak eta gizartea bera izan behar dira normalkuntza politikoari begira, azken batean gizartea delako bere etorkizuna erabakitze eskudun bakarra. Hori dela eta, ezinbestekoa da elkarrizketa demokratikoaren lehen adierazpidea prestaketa-batzordea izatea; eta hurrengo, inor baztertzen ez duen normalkuntza-mahaia eratzea. Beraz, hauteskunderen inguruko tentaldiak eta alderdikeriak edo bi edo hiruren arteko hitzarmenak alde batera utzi behar dira. Horrela, bada, ez da Katalunian bezala gertatuko, Parlamentek Estatutari buruzko hitzarmena berretsi ondoren, Zapatero presidentearen eta CiUko Artur Mas ordezkariaren arteko bileran zapuztu zutelako. Dena dela, Kataluniako gizarteak jarrera hori zigortu du erabat, axolagabekeriak agertu delako Estatut berriaren aurrean eta abstenitu egin delako. Horren ondorioz, ezin dugu onartu Euskadiko etorkizunean halakorik jazotzea. PSOEk alderdi politiko guztiak hartu behar ditu kontuan inolako salbuespenik gabe, eta ezin ditu adostasun mugatuak bilatu, errakuntza galanta delako. Hain zuzen ere, hiritarrei eztabaida lapurtzea eta erabakitze eskubidearen onspena murriztea edo mugatzea dute helburu nagusi.

8.- Alde horretatik, prozesua bete-betean garatzeko orduan, prestaketa-batzordea eta normalkuntza politikorako mahaia sortzea bezain garrantzitsua da hiritarren partaidetza sustatzea. Nola? Gure asmoa ez da arlo honetan dugun jarrera inposatzea, baina benetan uste dugu euskal gizartea normalkuntza-prozesuaren hasiera-hasieratik izan behar dela protagonista aktiboa. Gaur egun, hiritarren partaidetza aldarrikapen demokratikoa da, eta herri-galdeketa da bere adierazpide nagusia. EZKER BATUA/BERDEAKek erabakitze eskubidea onetsi egin behar dela adierazten duenean, ez du arlo politikora mugatzen, arlo sozial, kultural eta ekonomikora zabaltzeko behar delako, bai eta jendartean garrantzia daukaten beste gai batzuetara ere (horra hor zentral termikoak, erraustegiak, abiadura handiko trenak, azpiegitura handiak, zerbitzu publikoen pribatizazioa...). Normalkuntza politikoa dagokionez, herri-galdeketa ez da hasiera batean prozesuaren amaierara mugatu behar, alderdi politikooi egokia iruditzen zaigunean kontuan hartu beharreko aukera delako. Hona hemen hiritarren partaidetzaren beste adierazpide batzuk: jendearen iritzia buruzko inkestak, inplikaturako eragile guztientzako galde-sorta (biktimen elkarteak, presoak, sindikatuak, enpresariak, eliza, talde bakezaleak, elkarte-mugimenduak, unibertsitateak, komunikabideak... kontuan hartuta). Horiek horrela, jendeak gai garrantzitsuei buruz daukan iritzia zein den jakin ahal izango dugu. Horretarako, sinadurak bildu daitezke, manifestaldiak egin daitezke, elkarrizketa demokratikoa eta erabakitze eskubidea sustatzeko ekitaldiak antolatu daitezke... Izan ere, horietan ere badira hiritarrek parte hartzeko modu egokiak.

9.- Agerikoa denez, indarkeriaren biktima guztien samina eta sufrimendua errespetatu behar dira bakegintzaren zein normalkuntza politikoa arloetan garatutako jarduketaren guztietan. Zentzu horretan, zenbaiten manipulazio alderdikaria eta interesatua gaitzetsi behar da, bakea eta normalkuntza politikoa eragozteko erabili nahi dituztelako biktimak. Ezinbestekoa da talde horretan dauden ideien eta sentsibilitateen aniztasuna onartzea, sektore askok euren sentimenduak bakarrik balitz bezala bateratzen saiatzen badira ere. Jakin badakigu senitartekoren bat galdu edo indarkeriaren biktima zuzenak izan diren guztiek lehentasun bera dutela: beste pertsona batzuek samin eta sufrimendu hori ez jasatea.

10.- Eusko Jaurlaritzak eta bere Kontseilu Politikoak eragile aktibo moduan daukaten zeregina suspertu eta indartu egin behar da, giza eskubideak, elkarrizketa demokratikoa eta erabakitze eskubidearen onspena errespetatzeko. Gure erakunde demokratikoak bigarren mailan utzi nahi dituzten Eusko Jaurlaritzari eta bere Kontseilu Politikoari esan behar diegu ekarpen guztiak direla garrantzitsuak, eta, are gehiago, bakearekiko konpromisoa ezaugarri bereizgarri izan duten erakundeak, PSOEk eta Alderdi Popularrak inolako eragozpen politiko eta etiko barik kriminalizatu zituztenean eta terrorismoarekin lotura zeukatela adierazi zutenean, 2001. urtean boterea lortzeko asmoz.



EzkerBatua
Berdeak

**Decálogo para Impulsar la Paz y
la Normalización Política**

RETOS PARA HACER EFECTIVO EL CESE DE LA VIOLENCIA, EL DIÁLOGO DEMOCRÁTICO Y LA CONVIVENCIA PLURAL EN EUSKADI

1.- Inicio oficial de las conversaciones entre el Gobierno del Estado y ETA, al objeto de sentar las bases de un auténtico proceso de paz. El Presidente del Gobierno del Estado deberá informar puntualmente y con carácter periódico al conjunto de formaciones políticas del momento exacto en el que se encuentra el proceso de paz, así como sobre aquellas medidas que puedan adoptarse en relación con este ámbito.

2.- Anuncio por parte de ETA del cese definitivo de toda expresión de violencia, incluido su rechazo a la kale borroka, renuncia a ejercer cualquier tutela sobre el proceso de normalización política y delegación de sus reivindicaciones políticas en la izquierda abertzale, que habrá de comprometerse, a su vez, a defender sus ideas y sus proyectos por cauces exclusivamente políticos y democráticos.

3.- Acercamiento de todas las personas presas a sus lugares de origen, en cumplimiento de la legislación penitenciaria vigente; en este contexto, se inscriben, igualmente, otras propuestas como pueden ser la libertad condicional, la progresión de grado y el régimen abierto, el indulto parcial o la excarcelación por enfermedad grave y/o incurable. El conjunto de la sociedad vasca, sus instituciones más representativas y la mayoría de sus agentes políticos y sociales exigen un cambio en la política penitenciaria, y su mantenimiento sólo se explica, en consecuencia, si el PSOE entiende la situación de las personas presas como moneda de cambio en un proceso de negociación.

4.- La derogación inmediata de la Ley de Partidos Políticos es una demanda democrática, en la medida en que no penaliza la comisión de delitos, sino la defensa de proyectos políticos. Consideramos, en cualquier caso, que les corresponde, en este momento, al Gobierno del Estado y a Batasuna pactar una fórmula viable y factible que garantice la legalización política y jurídica a todos los efectos de la izquierda abertzale, de modo que la situación actual no sea utilizada por nadie como una excusa para demorar el diálogo democrático, la constitución de una mesa de normalización política y con ello el debate y el acuerdo sobre el reconocimiento del derecho a decidir, su incorporación al ordenamiento jurídico y político y su ejercicio mediante consulta popular.

5.- El archivo de la causa 18/98 y la suspensión del juicio son, igualmente, demandas democráticas en nuestra Comunidad, que han de verse atendidas en la medida en que su vigencia constituye un caso claro de persecución política, generada al amparo de los gobiernos de José María Aznar, que contó en aquel momento con el respaldo del PSOE. Esta situación ni puede ni debe mantenerse en un clima de cese de la violencia, expectativas de paz y normalización política, y refrendo de la independencia judicial y la separación de poderes como referentes del Estado de Derecho.

6.- Constitución de una Comisión Preparatoria para la creación de una Mesa de Normalización Política, con presencia de una persona en representación de cada formación política. Entre sus cometidos prioritarios se encuentra alcanzar un acuerdo sobre metodología, agenda, temas, calendario,... Estará abierta, igualmente, a la participación de agentes sociales vascos e internacionales con experiencia contrastada en la resolución de conflictos de origen político. Los contactos bilaterales han permitido recuperar la confianza entre las formaciones políticas, pero han tocado techo y es necesario habilitar nuevos cauces para impulsar el diálogo democrático en torno a una mesa. Las aportaciones de la llamada Mesa de Egipto pueden ser un punto de partida por su relevancia y el nivel de consenso que alcanzaron en su momento.

7.- Del mismo modo que en el capítulo de la paz el protagonismo ha de recaer en el Gobierno del Estado y ETA, en el capítulo de la normalización política el protagonismo ha de recaer en el conjunto de formaciones políticas y en la propia sociedad, que es, en definitiva, la única competente para decidir su futuro. Por ello, es imprescindible que el diálogo democrático tenga como cauce de expresión primero una comisión preparatoria y después una mesa de normalización, sin exclusión de nadie. Es preciso, a este respecto, evitar las tentaciones partidistas y electorales, o los pactos a dos o tres bandas, tal y como ha ocurrido en Catalunya, donde el acuerdo sobre el Estatut ratificado por el Parlament fue después desvirtuado en una reunión entre el Presidente Zapatero y Artur Mas, en representación de CiU. La sociedad catalana ya ha penalizado esta actitud con su indiferencia y su abstención ante el nuevo Estatut, y debemos evitar, por tanto, que esta situación se repita en un futuro en Euskadi. El PSOE tiene que contar con el concurso de todas las formaciones políticas, sin excepción, y no puede cometer el error de buscar consensos limitados, que tienen como único objetivo hurtar el debate a la ciudadanía y, en nuestro caso, buscar una fórmula que rebaje o limite el reconocimiento del derecho a decidir.

8.- En coherencia con el punto anterior, tan importante como la creación de una comisión preparatoria y la propia mesa de normalización política resulta la participación ciudadana en el desarrollo integral de este proceso. ¿Cómo? No es nuestra intención imponer nuestras posiciones en esta materia, pero creemos sinceramente que la sociedad vasca tiene que ser protagonista activa desde el inicio del proceso de normalización. La participación ciudadana es hoy una reivindicación democrática, que tiene en la consulta popular su máximo nivel de expresión. Cuando EZKER BATUA/BERDEAK exige el reconocimiento del derecho a decidir no lo circunscribe exclusivamente al ámbito político; planteamos su extensión a los ámbitos social, cultural, económico y en todas aquellas otras cuestiones que tengan una trascendencia pública, (centrales térmicas, incineradoras, tren de alta velocidad, grandes infraestructuras, privatización de servicios públicos,...). En lo que respecta a la normalización política, entendemos que la consulta popular ni puede ni debe limitarse “a priori” al final del proceso, sino que ha de estar presente como una opción a tomar en consideración cuando las formaciones políticas lo estimemos conveniente. Otras expresiones de participación ciudadana son las encuestas a la opinión pública, la distribución de un cuestionario común a todos los agentes implicados, incluidas asociaciones de víctimas, personas presas, sindicatos, empresarios, iglesia, grupos pacifistas, movimientos asociativos, universidades, medios de comunicación,... de modo que podamos conocer su opinión en cuestiones clave; la movilización a través de la recogida de firmas, manifestación, actos de apoyo al diálogo democrático, al derecho a decidir,... también son fórmulas de participación ciudadana a considerar.

9.- El respeto al dolor y al sufrimiento de todas las personas víctimas de la violencia debe presidir, como no podía ser de otro modo, el conjunto de actuaciones a seguir en los ámbitos tanto de la paz como de la normalización política; en este sentido, es preciso rechazar la manipulación partidista e interesada de quienes aspiran a poder utilizar a las víctimas como freno para impedir que la paz y la normalización política sean una realidad. Es necesario reconocer la pluralidad de ideas y sensibilidades existentes en este colectivo, por mucho que haya sectores que tienden a unificar sus sentimientos como si fueran sólo uno. Tenemos la convicción de que quienes han sufrido la pérdida de un ser querido o directamente las consecuencias de la violencia comparten una misma prioridad: evitar ese dolor y sufrimiento a otras personas.

10.- Revitalizar y reforzar el papel del Gobierno vasco y su Consejo Político como agentes activos en defensa del respeto a los Derechos Humanos, el Diálogo Democrático y el reconocimiento del Derecho a Decidir. Frente a quienes parecen interesados en relegar a nuestras instituciones democráticas, en este caso el Gobierno vasco y su Consejo Político, a un segundo plano, tenemos que decir que todas las contribuciones son igualmente importantes, y máxime aquellas que provienen de instancias que se han caracterizado por su compromiso con la paz en un periodo en el que el PSOE junto al Partido Popular no tuvieron reparos políticos ni éticos en proceder a su criminalización e incluso vinculación al terrorismo con el único objetivo de alcanzar el poder en el año 2001.